

## **BATZAR OROKORRAREN AKTA**

Partehatzaileak: Jon Serrano, Antxon Alfaro, Joakin Garrido, Juan Carlos Mora, Javier Cantera, Angel Calvo, eta Iñigo Landa.

Casares Kultur Etxean, 1995eko urriaren 18an bildu ginen arratsaldeko 7.00tan, Batzarrerako aurretik jarritako gai zerrendari helduz.

### **1. Bukatu berri den lan-urtearen txostena**

Azken Batzarretik hona, -otsailetik, alegia-, ez da urtebete pasa baina, momentu horretan erabaki genuen bezala, gure elkarteko martxa urtebete eskolarrera egokitzea hobe izango zela pentsatu genuen eta, horregatik, hemen gara berriro, jada ahaztuta dagoen udako nagia gaindituz, Batzar berri bat burutzen, uda aurrean bukatu gabe utzitako lanak berriro helduz, eta asmo berriei bideak zabalduz, beti ere Altza gure gogoan dugularik.

Esan bezala, zazpi hilabete baino ez dira pasa, baina lan egiteko denbora izan dugu, gustatuko litzaigukeen haina ez bada izan ere. Ondoren zehaztuko ditugu hilabete hauetan elkartearikiko hartutako erabaki nagusienak eta, era berean, burututako aktibitateak. Aktibitateak, kanpora begira, ez badira oso deigarriak izan ere, oso garrantzitsuak izan dira, gure elkarteko helburuei eta lanari heldutasuna eman diotelako.

### **Katalogazioa**

Katalogazio berriari ekin genionean, -azkena 1992. urtean egin zen eta materialen zati batekin bakarrik-, beharrak bultzaturik izan zen, oso handia baitzen pilatutako dokumentuen kopiak, argazkiak eta bestelako materialen kopurua. Hasiara batean, katalogazio xehe bat egiteko asmoa genuen, gure ahalmenaren neurrian, eta honetarako, materialen sailkapen bat eta materiale bakoitzarentzako fitxa eredu bat prestatu genituen. Lana horrela zegoela, Juan Carlos Mora hasi zen asteazkenetako bileretan parte hartzen, eta bere laguntza eman zigun katalogazio lanaren prestaketan. Historialaria eta artxibategi lanetan aditua denez, pentsatu genuen aukera on bat bagenuela berarekin katalogazio lana serio eta liburutegiaren araudietara egokitua egiteko. Bestalde, eta suposatuko duen lana ikusiaz, lan horren truke ordaintzea merezi zuela otu zitzaigun ere. Ildo honetan, ondoko baldintza hauek zehaztu genituen berarekin:

- a) Katalogazioa elkarrekin egingo genuela.
- b) Orain arte Bilduman bildutako materiale guztia katalogatu, katalogazio-fitxa eredu osoago bat erabiliz.
- c) Katalogazioa San Martzialerako bukatua egotea nahi genuen, baina zegoen lan itzela ikusi ondoren, behar zen denbora hartzea erabaki genuen. Amaitzerakoan, katalogoaren ale batzu inprimatuko dira, libutegian publikoarentzako eskeiniko dena, bai mailegurako baita bertan kontsultatzeko ere.
- d) Presupostutako 400.000.- pezetatik erabilitako materialea deskontatuko dugu, hala nola katalogoa inprimatzeko behar izandako diru kopurua. Geratzen den diru-kopurutik %25 Altzako Historia Mintegiarentzat izango da eta, gainontzekoa, Juan Carlos Morarentzat.

Katalogazio lana, momentu honetan, amaitzear dago. Dagoeneko, ez dugu materiale berririk Bilduman sartuko eta, hemendik aurrera datorrena, poliki-poliki katalogatzen joango gara gure eskuetara heltzen den heinean. Orain geratzen den lana zera da, Tokiko Bilduma berrantolatu (ondoko puntuan ikusiko dugun bezala) eta fitxak inprimatu. Guztia abendurako egotea espero dugu.

### **Tokiko Bilduma**

Bildumaren egoera izan zen, neurri handi batez, katalogazio berria egitera bultzatu gintuena. Gorago esan bezala, zenbait gauza sailkatuak zeuden, baina gehienak ez. Azken urteotan, materiale asko eta asko sailkatu gabe pilatu da, beraz, erabateko eraberritze lana behar izan du. Honetarako, liburutegiko “arraiontzian” dagoen apalategia erabiliko dugu dena, katalogazioaren arabera, ongi ordenatzeko.

### **Lankide berriak**

Hilabeteotan, lagun gehiago bildu gara Mintegiko lanak aurrera eramateko: Javier Cantera, Angel Calvo, Juan Carlos Mora, eta, azken aldi honetan, Arantxa Martinez eta Isabel Murillo. Haien partaidetza garrantzitsua izan da Mintegiaren eraberritzerako ere.

### **Ibilaldiak**

Hiru ibilaldi antolatu ditugu hilabeteotan. Bata, martxoaren 25ean izan zen; Angel Calvo gidaturik Izarraitzeko elurzuloak ezagutzera joan ginen; eguraldi kaskarra izan genuen. Beste batean, Artzaka eta Txipres baserriak bisitatzera joan ginen; hemen ere izugarrizko eguraldi txarra izan genuen. Eta azkenik, irailaren 30ean, Erreterria eta Altzaren arteko mugarriak ikustatzera joan ginen; eguraldia ez bazen ona izan, emaitzak bai, zenbait baserritarrei esker bost mugarri ikustatzeko aukera izan baikenuen.

### **Agiritegiak**

Zenbait agiritegi historiko arakatu dugu (besteak beste, Altza, Erreterria, Hernani, Oñati, Tolosa, Bergara, eta San Bartolomekoa) eta dokumentazio pilo bat aurkitu dugu. Zenbait agiri fotokopiatu egin dugu, baita batzu transkribitu ere, baina, gehien bat, agirien fitxa apuntatzerekin konformatu gara. Honek bultzatu gaitu proiektu berri bat burutzen saiatzera, urte berriko egitasmoan azalduko den bezala.

### **Hemeroteka**

Tokiko Bilduman ehundaka egunkari berriak pilatu zaizkigu, eta ezin ditugu katalogoan sartu, lana zoratzeko izango litzateke eta. Hala ere, gordetzeko modu erabaki dugu eta, poliki-poliki, lan horretan ari gara.

### **Grabaketak**

Ez dugu gai honetan gauza handirik aurreratu. Kaseta majo bat erosi dugu, grabaketak baldintza onekin egiteko modukoa eta, baita ere, badugu pentsatuta lehenengo elkarriketa nori egin. Burutzea besterik ez zaigu falta.

### **Posterra**

Altzaren ikuspegi orokorra jasoko zukeen Poster handia argitaratu nahi izan genuen.. Aurrekontua ia miloi batekoa zen eta finantziatzeko Donostia-Gipuzkoa Kutxa eta Euskadiko Kutxako zuzendariengana jo genuen proiektua idatziz azalduz, baina dirudienez, proiektuak ez du izan haien oniritzia eta, momentuz, bertan behera geratu da.

### **Harremanak**

Dagoeneko harremanetan jarri gara Gipuzkoako zenbait elkarte eta erakundeekin (Hernani, Erreterria, Deba..) eta haiengandik materiala jasotzen ari gara. Haiekin beharrezko begirunea izateko, geuk egindakoa bidaliko diegu.

Bestalde, harremanetan jarri gara ere Herrerako Auzotegiko partaidea den Elena Arrieta emakumearekin; bertan bilduta duen materiala oso garrantzitsua da, argazki, idatzi eta bestelako materiale asko bildu baitu Auzotegiko bulegoan eta, azaldu digun asmoaren arabera, Tokiko Bilduman gordetzeko asmoa du.

Maiatzean, Contadores Topalekuan Bidebietari buruzko erakusketa prestatu zuten bi neskekin, Arantxa Martinez eta Isabel Murillo, harremanetan jarri gara eta, honengatik, gure bileretan parte hartzeko asmoa azaldu dute.

Izan ditugun beste kontaktu batzu hauek izan dira: Ortzadar eta Elkarte Berri Emakume Elkarrekin beraien elkarteekin loturiko zenbait materiale pasa digute; Foto Zarranz bisitatu dugu eta ateak zabaltu dizkigu; Ignacio Gaiztarrarekin ere kontaktoa berriro dugu;...

### **Mintegiaren Funtzionamendua**

Martxoan zenbait erabaki hartu genuen barruko antolaketari buruz. Erabakitakoa gogoratzeko asmoz, berriro azalduko dugu:

- ⇒ Batzar Orokorra Irailean (gutxi gora behera) ospatuko ditugu.
- ⇒ Deiak eta funtzionamenduak estatutoetan dagoenari helduko diote.
- ⇒ Oinarrizko Gai-zerrenda ondoko hau izango da:
  - \* Bukatu den lan-urtearen txostena.
  - \* Bukatu den lan-urtearen balantze ekonomikoa.
  - \* Lan-urte berrirako egitasmoa.
  - \* Lan-urte berrirako aurrekontua.
  - \* Oharrak.

#### a) Batzordea:

- ⇒ Batzordea hilabetean behin bilduko da, udako oporretan ezik, aurreneko edo bigarren astearen asteazkenetan.
- ⇒ Bilera hauek irekiak izango dira.
- ⇒ Oinarrizko Gai-zerrenda ondoko hau izango da:
  - \* Martxan dauden ekintzen eta lan-taldearen informazioa jaso.
  - \* Mintegiarekin loturiko gai buruzko erabakiak hartu.

#### b) Lan-taldeak:

- ⇒ Urteko egitasmoan zehaztutako helburuen inguruan eta Mintegiaren beste ekintzen inguruan bildutako bazkide eta lankideen bilgunea.
- ⇒ Bileren maiztasuna eta edukia partaideen irizpidepean geratzen da.

## **2. Bukatu den lan-urtearen balantze ekonomikoa**

Aurreko Saldoa	21.329.-
Sarrerak	7.-
Gastoak	5.770.-
<b>Saldo Berria</b>	<b>15.566.-</b>

## **3. Lan-urte berrirako egitasmoa**

- a) Aurten **hamargarren urteurrena** ospatuko dugu. Agian merezi du zeozer berezia prestatzea.
- b) **Omenaldiak**: Altzako lagun ospetsu baten omenez afari/bazkari bat egin daiteke.
- c) “**Altzatar ikertzailearen gida**”: Zenbait agiritegi historiko arakatu dugu (Alta, Errenteria, Hernani, Oñati, Tolosa, Bergara, San Bartolome) eta dokumentazio pilo bat aurkitu dugu. Bildutakoarekin liburuxka bat prestatu daiteke.
- d) “**Hautsa Kenduz IV**”
- e) **Ibilaldiak**
  - Pasaia eta Altzaren arteko muga.
  - “Alta Basua” bisitatu.
  - Arabar Errioxara elurxuloak eta abar ezagutzera.
- f) **Beka**: Altzari buruzko ikerketak bultzatuko lukeen **Bekarentzako** deialdia egin. Kontuan hartzen badugu Altzari buruz oso ikerketa lan gutxi egiten direla, beharrezko deritzogu ikerketa bultzatzea, beste herrietan egiten den bezala, sari baten bitartez. Adibide gisa, Zumalakarregi Museoa urtero

egiten duen deialdia dugu edota Oiartzungo Udalak hilak 16ean egin duena. Gure kasuan gutxi gorabehera 200.000 ptako beka izango litzateke, Kutxa edo antzeko norbaitek finantziaturik.

- g) **Argazkien bilketarekin** jarraitu.
- h) **Grabaketak.** Bi motatako grabaketak:
  - ⇒ Adineko pertsonen testigantza jasotzeko amoz eginak.
  - ⇒ Guri interesatzen zaizkigun zenbait argazkien inguruan informazioa jasotzeko asmoz. (Gogoratu batzutan aipatu izan dugu **Argazki Liburua**)
- i) **Kontaktuak.** Orain arte egindakoarekin jarraitu
- j) **Prentsarako artikulua** prestatu, gehien bat baserrien inguruan, lehentasuna emanez erortzeko edo desagertzeko zorian dauden baserriei, hauek bota ez ditzaten.
- k) **Boletín** informatzaile bat egin, hiruhilabetean behin.
- l) **Bazkide berriak** bilatu. Bazkideentzako baldintzak hauek lirateke:
  - ⇒ urtean 1.000 pta.ko kuota.
  - ⇒ kuota horren truke:
    - \* Hiru edo bi hilabetean behin boletín bat.
    - \* Hautsa-kenduz aldizkaria dohain.
    - \* Aktibitateen informazio zuzena.

#### 4. Lan-urte berrirako aurrekontua

Aurrekontu zehatzak ez genituen egin baina zenbait diru sarrera aipatu bai:

KUTXA: beka proiektua aurrera eramateko	200.000.-
Auzoetarako Zinegotzia: “Altza Ikertzeko Gida” argitaratzeko	300.000.-
Komertzioak: Boletina argitaratzeko	16.000.-
Bazkideak (20? x 1.000)	20.000.-

#### 5. Bazkide berrien onartzea

Batzordeak bazkide berriak aurkeztu zituen eskubide osoz bazkideak izateko:

Angel Calvo; Javier Cantera; Juan Carlos Mora; Arantxa Martinez; Isabel Murillo.

Guztiak aho batez onartuak izan ziren. Arantxa eta Isabel bileran ez zeudenez, Batzorde bilera batean konfirmatzeko geratu zen.

Beste gairik ez zegoenez, Batzarra amaitutzat eman zen.

Lehendakaria

Idazkaria

Jon Serrano

Iñigo Landa